

Gaitasun handia dutela erakutsi zuten Jalgune elkartekoek

Atzo laguntzaile, senditarteko eta begiraleekin bazkaldu zuten Goiegin

Asteburuan festa egin dute Jalgune aisialdi elkartean dabilzanek. Urritasun fisiko eta psikikoren bat duten lasarte-oriar hauek jaialdi bikaina eskaini zuten batetik larunbat arratsaldean Manuel Lekuona Kultur Etxean eta bide batez gaitasun handia dutela erakutsi ere bai. 18:30etan hasi eta bi orduko jaialdian denetarik egin zuten, dantza, batukada, eta antzerkia besteak beste.

Atzo, asteburuko ekitaldiekin jarraituz, Goiegi jatetxean bazkaldu zuten senide, begirale eta laguntzaileekin batera. Guztira 70 lagun elkartu ziren. Bazkalostean herriko zenbait talde eta elkarteri opari bana eman zien Jalgunek, aisialdi elkarteari urtean zehar eskainitako laguntzaren truke. Besteak beste, Santa Ana parodia, Hermandad Virgen del Rocio eta Anso tabernaren laguntza eskertu zuten Jalgunek.

Bazkalondoren giro bikai-

na izan zen: kantuan, dantzan eta jolasean aritu ziren senideekin batera.

Jalgune urritasunak dituztenentzat aisiako eta denbora libreko herriko elkarteak da eta eurak izan ziren larunbateko jaialdiko protagonista. Hunkigarria izan zen urritasunak dituztenak zein gaitasun dituzten ikustea. Jalguneren lana zoriontzekoa dela argi ikusi zen Kultur Etxea bete zute ikusleek izan zuten jokaeran. Azpimarratzeko izan zen ikusleen jarrera eta parte hartzeko eskatu zitzaizenean asko pentsatu gabe igo ziren oholtzara.

Batukada taldekoekin batera atera ziren hasieran Jalgune taldekoak eta ondoren ingurutxo dantza, zenbait abesti eta Euskararen Maratoirako prestatu zuten antzerkia eskaini zituzten. Maratoiko kanta ere gogoz abestu zuten zortzikoteko hiru kideekin batera. •



Hunkigarri bezain ikusgarria izan zen Jalgunek larunbat arratsaldean Kultur Etxean eskainitako emanaldia.

KIROLAK ■ 2

Ariketa eta jolasa uztartu zituzten eskualdeko neska-mutilek Eskola Kirolaren Topaketan



Maria Hazel Lau Emakume Indigenen foroko ordezkariarekin solasean /4



Gabon Ekologikoa izango da Kontsumo eta Ingurumen sailak antolatutako jardunaldien gaia /5

Getoki
viajesbidaiak

Denboraldi honetan **eskaintza bereziak** eskiatzera joateko!

Geltoki kalea 17 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 247766

Zitek zientzi eskola

- ✓ Laguntza klaseak
- ✓ Zientziak eta hizkuntzak
- ✓ Informatika ikastaro trinkoak
- ✓ IT txartela
- ✓ Umeentzako informatika

Teléfono: 943 363106
Goikale 12, bajo
20.160 - LASARTE-ORIA

Eskola Kiroleko Alebinen Topaketan kirola eta jolasa uztartu zituzten



Polikiroldegian saskibaloari lotutako jolasetan aritu ziren.



Igerilekuan lau gune jarri ziren joku ezberdinetan aritzeko.

Eskola kiroleko topaketak ospatu zituzten larunbat goizean, Lasarte-Oriako udal kiroldegian. Bertan 8 eta 9 urte bitarteko 100 haur inguru elkartu ziren igeriketa eta saskibaloian aritzeko. Benjamin mailako lehen topaketa izan da eta ardurdunen hitzetan, "topaketak harrera ona izan du. Ia 100 haur gerturatu dira kirola egitera eta giroa oso alaia eta polita sortu dute".

Eskola Kiroleko benjamin mailako topaketa egin zuten larunbatean. LH3 eta LH4ko ikasleek Lasarte-Oriako kiroldegira gerturatu ziren 9:30etan. Laugarren mailakoekin zioten topaketari, Buruntzaldeako Topaketari. Lasarte-Oriako ikasleek gain, Usurbilgo eta Urnieta-ko haurrak ere parte hartu zuten kirol topaketan.

Hauk goizeko 10:00etan ekin zioten eta bi orduz saskibaloiaz eta igeriketaz gozatzeko aukera izan zuten.

Topaketa antolatzeko zeuden dozena bat begiraleek bertaratu ziren kirolariak bi taldeetan banatu zituzten, batzuek igerilekura egin zuten salto, besteak berriz pistan sartu ziren.

Igerilekuan sartu zirenek lau gune desberdin aurkitu zituzten uztailaz, alfonbraz, koltxonetaz eta bestelako jostailuez beteta. Bitartean, gainontzekoak begiraleek 8 guneetan prestatutako saskibaloio joku ezberdinekin gozatzeko aukera izan zuten: balaio eskutan zutela erreleboak eta trebetasun jokoak burutu zituzten. Goizeko 11:00etan pistan zeuden igerilekura joan ziren eta igerilekukoak lehortu eta pistara jaitsi ziren saskiba-

loiko jolasak egitera.

Lehen mailako alebinak

LH3ko kirolariak 12:15etan elkartu ziren udal kiroldegian, eguneko bigarren topaketan parte hartzeko. Aurrekoa Buruntzaldeako Topaketa izan zen arren, bigarren honetan Sasoeta eta Landaberri ikastetxeetako haurrek parte hartu zuten.

Topaketa honetan aritu ziren 3.mailako ikasleek sas-

"Benjaminen topaketak harrera ona izan du eta giro polita sortu da"

kibaloia egin zuten soilik. Baina, ikusi zitekeenez, asko disfrutatuta zuten jolas ezberdinetan parte hartuz. Hiru hiru aurkako partidak egiteko aukera izan zuten ere.

Kirolaz gozatuz

Aitzol Zerain Eskola Kiroleko koordinatzailea pozik azaldu da benjaminen topaketa amaitu ondoren: "topaketa antolatzeko lana eskatzen duen arren, pozza-

ria da hainbeste haur kirola eginez ondo pasatzen dutela ikustea".

Eskola Kiroleko Topaketaz aritu gara koordinatzailearekin eta topaketa hauen helburuak azpimarratu eta gogoratu dizkigu: "sei eta hamasei urte bitarteko haur eta gazteekin aritzen gara eta ikasle hauek kirola egin dezaten da gure helburu nagusia. Kirol ezberdinak ezagutzeko eta praktikatzeko aukera eskaintzen zaie eta kirola egiteaz gain kirolaren bitartez hainbat balore transmititzen saiatzen gara: taldean lana egiten erakutsi, laguntasuna sustatu, integrazioa, tolerantzia, arauen onarpena, autodisziplinak, kooperazioa, ardura... Balore hauek barneratzen badituzte gazte hauen garapen integrarean lagunduko dugu" adierazi zuen baikor Aitzol Zerainek. •

"Kirolaren bitartez haur hauen garapen integrarean lagunduko dugu"

Kirolerako oharrak

Aerogazte

Astelehena eta asteazkenetan, 17:15ean, aerobikeko eskolak ematen dira 14 urtetik beherako neska eta mutilentzat, Udal Kiroldegiko aretoan. Begirale tituludunak koordinatu eta animatzen du, koreografia ugarirekin, musika eguneratu eta dibertigarriekin. Erritmoaren eta musikaren

bidez, giza-harremanak eta osasuna garatzen eta hobetzen dituzte.

Aquarobic

Modalitate fisiko berri honen eskolak Udal Kiroldegiko Igerilekuan ematen dira, astearte eta ostegunetan, 9:15etik 14:15era. Aquarobic uretako gimnasia egitean datza, musikaz eta ikasle beharretara egokitutako ariketak

lagundua. Edozein adin, genero eta mailako pertsonak egin dezaketen jarduerak da. Aerobicaren bidez errendimendua handitu daitezke diren kirolerak. Prestakuntza-modu ezin hobea da, baita gorputzaren goiko atalen esku-hartzea eskatzen duten jarduerak profesionala garatzen dutenentzat ere.

Kirol emaitzak

Areto-Futbola, herriko txapelketa

Siglo XX - B. Danena	C. Mayi - IOB
ISU - P. Morrison	C. Oriá - Jordi
Katanga - B. Ainhoa	Izarra - Biyona
Epel - Ilargi	Viña del Mar- urra XXI ...
Okela - Oriá Txiki	Buenetxea - Izkiña
Tragoxka - Obelix	

Itsasoa bilakatu zen protagonista Udal Euskaltegiko pintxo lehiaketan

■ Goizeko taldeen artean "Itsasoa eta lurra" izeneko eta arratsaldekoen artean "Itsaso gorria" izan ziren irabazleak. ■ Orotara 16 pintxo hotz prestatu zituzten euskara ikasleek.

TXINTXARRI

Udal Euskaltegiko ikasleek euren trebetasun gastronomikoa erakusteko aukera izan zuten ostegunean burutu zen pintxo lehiaketan. 16 pintxo hotz prestatu zituzten, 8 goizeko taldeek eta beste 8 arratsaldekoek, epai mahaikoan esanetan pintxo bikainak guztiak. Esan daiteke, aurten itsasoa eta itsasoko produktuak atera direla garaile. "Itsasoa eta lurra" eta "itsaso gorria" izeneko pintxoak jaso zituzten sariak. Lehenengoak beste beste izokina eta otarrainxa zeuzkan eta besteak aipatutako bi osagaiak eta antxoak ere bai.



Pintxo lehiaketa egin zuten ostegunean Udal Euskaltegian.

Denetariko pintxoak prestatu zituzten Udal Euskaltegiko ikasleek ostegunean urtero egiten den pintxo lehiaketarako. Ttakun kultur elkarteak epai mahaikoek kontatu zutenek, maila handiko pintxoak guztiak, saritzeko modukoak, baina bi sari soilik eman ziren, bata goizeko taldeen arteko pintxo onenari eta bestea arratsaldeko taldeen arteko onenari. Eta biak antzekoak izan ziren, biak zeukaten izokina, otarraixka eta tomatea beste osagai batzuen artean.

Goizean aurkeztu ziren 8 pintxoaren artean "itsasoa eta lurra" izeneko aukeratu zuten Arantza Artola eta Pili Bermejo epai mahaikoek. Arrautza egosia, izokin ketua, ogi xerrak, letxuga hostoa, maionesa, otarrainxa eta tomatea zeuzkan.

Arratsaldeko taldeek ere itxura bikaineko zortzi pintxo aurkeztu zituzten. Arratsaldean epai mahaiko aritu ziren Jon

Altuna eta Mailu Arrutik "Itsaso gorria" aukeratu zuten. Honek ogi xerra bat, tipulina, perrexila, tomatea, pikillo piperra, gazta, oliba olio, Modenako ozipina, antxo, izokina eta otarrainxa zeuzkan.

Baina denetariko pintxoak izan ziren ez bakarrik itsasorekin lotutakoak, esate baterako, "Aizkorriko gutzia", gazta eta intxaurrak osagai nagusi

zituena, "Gazi-gozo sentsazioa", hustutako tomate batean hainbat osagai zituena, "Pou-purria" koilara baten gainean aurkeztu zutena edota "Mokadu nordikoa" besteak beste.

Epai mahaikoek pintxoak dastatu ondoren, talde bakoitzeko partaide batek honen osagaiak eta prestaketa azaldu zituen besteekin aurrean. Bukatzeko sari banaketaren ondo-

ITSASO GORRIA

Alde batetik, ozpin olio prestatuko dugu: tipula, perrexil, tomate, pikillo piper, gatz, oliba-olio eta Modenako ozipinarekin. Ondoren, ogi xerra baten gainean, olio ozpin pixka bat jarri, eta horren gainean antxo bat (edo bi). Gero ozpin-olioa bota beharda eta, azkenik, bi otarrainxa gehitu.

ITSASOA ETA LURRA

Letxuga, tomatea eta otarrainxa txiki, izokina eta arrautzen zuringoa ere bai eta dena maionesearekin nahastu. Ondoren, nahasketa ogi xigortuaren gainean jarri, honen gainean izokin tira bat eta izokinaren gainean otarrainxa. Azkenik, arrautzaren gorringoa birrindu eta pintxo gainean bota. •

ren ikasle, irakasle eta epai mahaikoak besteak beste patata tortilla pintxo batzuk dastatu zituzten. Euskara ikasleek esaten zutenek ahalik eta pintxo onenak prestatzen saiatu zirene eta pozik zeuden. Berritro ere izango dute sukalderako trebatasuna erakusteko aukera: Patata tortilla lehiaketa ikasturte amaiera aldera egingo da Udal Euskaltegian. •



Celestino Riveraren lana Udaberri elkarteak

Celestino Riverak beste bi lan bukatu berri ditu. Hauetako bat Udaberri elkarterako egin duen armarría dugu, abenduaren 20ean, eguerdian, Ana Urchueguia alkateak jende aurrean aurkeztuko duena. Armarría hareharriz egina dago eta 28 egunetan egin duela adierazi digu Celestinok. Lehenik ere Riverak egin-dako egurrezko lana dute Udaberri elkarteak, bazkideen izenak ezartzeko erabiltzen dena. Bestalde, hareharrizko beste lan bat ere aurkeztu digu, bertan hiru aingeru zizelkatu ditu. •

Ostarte elkarteak Boliviako haurren alde

Ostarte Elkarteak haurrentzako jokoak antolatu zituzten larunbatean goizez eta arratsaldez hain zuzen ere Boliviako haurren aisialdirako diru laguntza lortzeko. Konkretuki helburua, 150 bat euro lortzea zen hango haurrak jolasteko jausgailu edo paraxut joko bat erosteko.

Eta hain zuzen ere horrelako jausgailu batekin aritu ziren jolasean Lasarte-Oriako haurrak. Bien bitartean herritarrek euren ekarpenak egin zituzten, El Alto herrian dagoen Utasako zentroari laguntzeko. Horrela, batetik herriko umeek ondo pasa zuten eta boliviarrak ondo pasa dezaten lagundu. •



AURREKONTUAK

Udalaren eskerrak

Lerro hauen bidez Lasarte-Oriako Udalaren eskerrak eman nahi dizkie orain arte 2009ko aurrekonturako proposamenak egin dituzten herritarrei.

Aurrekontu parte-hartzaileak aurrera eramateko asmoz, udal aldizkariaren azken zenbakian lasarteoriarekin ikusten dituzten beharrak helaraztea proposatu zuen Udalak. Horiek kontuan hartuko dituzte gero.

Proposamen mordoxxa bat jaso dira, erantzuten ari direnak. Bere ideiak helarazi nahi dituen orok Udaletxeko atarian dagoen postontzi berdearen bidez egin dezake (gutunazalean "Aurrekontua" jarri) edo baita aurrekontua@lasarte-oria.org posta elektronikoen bidez.

Proposamen izendunek erantzuna jasoko dute. •

Nikaraguako Atlantikoko kostaldeko eta Euskal Herriko egoeren artean badira antzekotasunak. Honduras eta Nicaraguan banatuta daude miskitoak; autonomia sistema bat daukate; hezkuntza "interkulturala" bi hizkuntzatan ematen da; miskitoen hizkuntza eta gaztelera hitz egiten dituzte, eta toki batzuetan ingelesa ere bai; eta pentsamolde politiko ezberdina duten indigenek beraien artean tirabirak dituzte. Aipagarri da, Ha zel Lauren ustez, lurren jabetza aitortu zaiela eta Daniel Ortega presidentek behin eta berrito jendaurreko solasaldietan esan duena: "Nikaraguak ez du lurrik Atlantikoko kostaldean, herri indigenenak gure aurrekoak dira".

Kokatzeo, Atlantikoko kostako indigenei buruzko azalpena eman zigan Hazel Lauk:

"Badira indigenak Ozeano Pazifikokoaren kostaldean eta Erdialdean ere, baina beste erritmo bat daramate. Atlantikoko aldekoek autonomia dugu eta 2003tik 445 legea ere bai, indigenei eta kostako afrikar jatorriko nikaraguarrei euren lurren jabetza aitortzen diena.

Emakume indigenen egoera azaltzera zatoz...

Atlantikoko kostako emakume indigenengan oro har menpekotasun haremanak hor dirau oraindik, gizonek hartzen dituzte erabakiak normalean. Sendietan bortizkeria kasuak ugaritzen ari dira, Ertamerika osoan bezala. Abuztuaren aldirikari batean, Bilwi Puerto Cabezaseko hiriburua aipatuz zera salatzen zen, gurasoek eurek

Maria Hazel Lau Blanco Mexiko eta Erdialdeko Amerikako Emakume Indigenen Sarea
‘Miskitoen lurren ia erdiei aitortu zaie indigenen jabetza’

Miskito indigena herri batekoa da Maria Hazel Lau Blanco. Zuzenbidea ikasi zuen eta 16 urte zituenetik herri indigenen eta bertako emakumeen kausaren defentsan aritu da. Duela bi hilabete, magistratu izendatu zuten Nikaraguako Atlantikoko kostaldeko autonomian sortu berriak diren apelazio epaitegiak batean. Astelehenean, Kultur Etxean, Atlantikoko kostako indigenen eta bertako emakumei buruz hitzaldia eman aurretik izan genuen solasaldian, Nikaraguako eta bereziki Atlantikoko Kostaldeko miskitoen egoera ezagutzeko aukera izan genuen. Zailtasun handiak dituzte, batez ere emakumeek, Felix urakanak areagotu egin ditu arazoak, baina Managuak aitortu die behintzat autonomia eta lurren jabetza.

saltzen dizkietela euren alabak Itsasontzietako kapitainei, hauek baitira diru apur bat ordaintzeko moduan diren bakarrik. Harritu egin ninduen, ez nuen sinestu nahi, baina bertara iritsi eta lagunei galdezka hasi aurretik konturatu nintzen hori gertatzen ari dela. Beraz, hasierako kolpea jasan eta pentsatu nuen asumitu egin beharko dudala eta irtenbideak bilatzen saiatu.

Egun beste elementu garrantzitsu bat ere bada 2007ko irailean Felix urakanak eragindako kalteak. Kos-

tako indigenen komunitateen ehuneko 80ak izan zituen galarak, etxerik gabe geratu ziren

gehienak, fruta arbolak eta uzta galdu ziren. Bertakoak pobre izatetik pobregoa izatera pasa ziren, izugarri behartsuak.

Horrek zaildu egiten du generoen berdintasunaren aldeko lana. Jendeak aurrea irauteko baldintzak bilatu behar ditu. Laguntza gutxi iritsi da eta maiztean oraindik eskolak berreraiki gabe ziren. Denak beste erritmo bat du.

Emakumeen arazoa erronka handia da, baina, ez da bortizkeriaren aurkako batzorderik sortu eta sortu beharko da horrelako kasuak gerta ez daitezke.

Familia barruko bortizkeriari aurre egiteaz gainera, Ertamerika eta Mexikoko emakumeen sareak beste xede edo jomuga batzuk ezarri zituen, herrietan autodeterminazio eskubidea bera, lurraldetasun eskubidea eta emakumeen berdintasuna bultzatzeko

beste erabaki batzuk. Emakume indigenen Foroaren proposamen guzti hauetatik lurraldetasunaren aldetik aurrerapen handiak izan ditugu, azken bi urtetan sei titulu eman zaizkie sei herri indigenei, beste bat abenduan emango da, hiru aztertzen ari dira... miskitoen lurren ia erdiei aitortu da indigenen jabetza, beraz hor lur, ur eta baliabide naturalen kudeaketa indigenei dagokie.

Prozesua aratu duen 445. legearen laugarren artikulua argi esaten duenez komunitateko agintari aitortzen zaie Gobernu eta Administrazio organo direla eta bere ohituren arabera antolatuko direla. Beraz autonomian sakondu egin da tituluen banaketarekin. Beste administrazioek indigenen erakundeak errespetatu egin beharko dituzte.

Hau Ertamerika edo Hegoamerikako beste herri indigenetarako eredu izan al daiteke?

Legeak badira Amerikako zenbait herrialdetan, besteak beste Honduraz edo Kolonbian, 169. hitzarmena sinatu zuten eta, berez berretsi zuten momentutik bere herrialderako lege bihurtzen dira, beraz derrigortuta daude herri indigenei euren lurra eta baliabide naturalak aitortzeko, baina legeak onartzen badira ere gero ez dira aplikatzen praktikan, nire ustez borondate kontua da. •



“Gurasoek saltzen dizkiete euren alabak, Itsasontzietako kapitainei, hauek dira eta ordaintzeko moduan diren bakarrik”.

komunitate txiki batean, hain juxtu La Hayako akordioa erabakitzen ari zenean: gure komunitatea bitan banatu zuena, parte bat Nikaraguan eta bestea Honduras-en. Esan zen batetik bestera libreki pasatzea egongo zela, baina nire aitak kontatzen zenez guardiak bestaldera joateko esaten zieten. Beraz aitak ez zuen bere seme militarrik nahi. Horregatik ez dut maite, gurrekin edota militarrekin lotutako edozer. Gainera argi dago gerrak beti zentzugabeak direla.

Eta orain magistratua zara, hor ere izango duzu eragiterik?

Autonomiako 18. artikulua esaten du Justiziaren Administrazioa modu tradizionalan antolatu behar dela eta nik hori gauzatu nahi dut. Eta hori guk geuk egin behar dugu. Bestela juezak beti zure herri eta zure kulturarentzat arrotzak izango dira.

Duela bi hilabete hartu nuen epaile lana. Hasieratik ez dut ezkutatua judikatua sistema autonomoaren alde nagoela.

Duela gutxi Justizia Epaitegi Goreneko magistratu bati galdetzen nion, nola onartzen den miskito baten aurkako kasuan, idazkari batek kausaren laburpea gatzeleraz irakurtzea. Orduan zera esan zidan berak, idazkariak miskitoen hizkuntza irakasteko modua bilatzeko.

Nolakoa da bi hizkuntzako hezkuntza?

Hezkuntza Interkulturalaren ardatzak Autonomiako Kontseiluak ezartzen ditu. Bertan daude Gobernu autonomiko, unibertsitate eta indigenen ordezkariak ikasketen edukia erabakitzeko eta interkulturalitatea, izaera etnikoa,... babesteko. 82-84 artean ni hortan aritu nintzen eta askotan haserretu nintzen,

esaterako ikasketa batzutan mediku normala ateratzen zen soilik eta hezkuntza interkulturala bada, Saukia (indigenek ezagutzen duten lehen medikua) ere atera beharko litzateke.

Hezkuntzak emakumeen zapalketa gainditzeko ere garrantzia izango du, ezta?

Hezkuntza sisteman, ikasketa garrantzitsu bat gehitu beharko litzateke, generoan eta bakean sakonduz. Gure herrialdean bakerako hezkuntzaz hitz egiten dute baina gero ez da ezer.

Ekonomia aldetik konponbiderik edo etorkizunik ikusten al duzu?

Potenzial bat alperrik galten ari gara, turismoa. Gure inguruaren edertasuna baliatuz, turismo ekologikoa bultzatu daiteke. Nik uste gauza asko egin daitezkeela gauza txikietatik hasita.

Zer iruditu zaizu Euskal Herria?

Donostian egon naiz. Itsaso eta mendiak edonon liluratsen nau. Pena ezin dugula garai honetan itsasoaz eta hondartzaz gozatu.

Eta hemengo elkartasunaren berririk ba al zenuen?

Barkatuko didazue oker banabill, badakit gure hezkuntza interkulturalak hemengo laguntzaren bat jaso duela, baina katalanen laguntzen berri zabalagoa dut. Helduen alfabetatzea diruz lagunduko dutela esan didate.

Besterik esan nahi al duzu?

Hau kezka pertsonala da. Kontatu dut urakanarekin komunitateek dena galdu dutela, eta askotan herribiltzen zaizkit emakumeak zera aipatuz, tradizionalki josteko makinek familian ekonomian izan duten garrantzia. Ondo egongo litzateke josteko makina batzuk eskuratu eta familia horiei laguntzea, euren arropak eurek egiteko modua izan dezaten.

Elkartasun guztia ongi etorria da, baina josteko makina batzuen aldeko kanpaina laguntza oso egokia izan daitezkeela uste dut. •

Jon ALTUNA

Eguberri ekologiko baten aldeko jardunaldiak kulturetxean

■ Jardunaldiak abenduaren 2,3 eta 4ean izango dira Manuel Lekuonako hitzaldi aretoan

Urtero bezala, Ingurumen, Kontsumo, Merkataritza eta Osasun Sailak Eguberrietako Jardunaldiak antolatatu ditu. Baina, aurtenguz egitaraua guztiz berritzaile batekin datorrigu. “Eguberri ekologiko baten alde” lelopean aurkeztu dituzte aurtengo jardunaldiak.

Gabonak gertu ditugu eta kontsumo garaian buru belarri sartuta gaude. Ingurumen, Kontsumo, Merkataritza eta Osasun Sailak aurtengo jardunaldietan hau izan du kontutuan, jardunaldi hauek prestatzeko garaian. Aurtetik ikuspegi desberdin batetik landu dituzte sailetik igorri dutenez: “Eguberriak gertu ditugu. Euforia kontsumistak harrapatzen gaituen egunak dira, eta familien gastua izugarri igotzen da. Jardunaldi hauen bitartez, zenbait ideia proposatzen dizkizuegu, erosketak bakoitzak gure sakeletan duenaz gain-gure ingurumenean dituen ondorioen kontzientzia har dezagun”.

Produktu ekologikoak

Bihar hasi eta ostegunera arte luzatuko dira *Eguberri ekolo-*



Goiegi jatetxeko Juan Luis Eizmendi sukaldaria “Eguberrietarako Sukaldaritza Erraza” jardunaldietan.

giko baten alde jardunaldiak. Saio guztiak Manuel Lekuona Kultur Etxean, arratsaldeko 19:00etan izango dira.

Asteartean eta asteazkenean, nekazaritza eta sukaldaritza ekologikoaren

ezaugarriak eta onurak izango dituzte hizpide. Javier Prada Mantangorri Baserritarren Elkarteko kideak nekazaritza ekologikoaz arituko da. Hau da, modu jasangarri eta orekatuan landutako garaian

garaiko produktuen definizioa eta erakusketa egingo du. Estefani Seidenberger dietista makrobiotikoan adituak, berriz, osagai ekologikoak erabiliaz Gaztaina eta Intxaur Strudela, eta Udazke-


neko Taloa egingo du. Bertaraten direnek bi plater horiek dastatzeko aukera izango dute.

Kontsumo arduratsua

Urte sasoi honetan, urtean zehar erosten diren jostailuen %75a erosten dira, Espainiako Jostailu Ekoizleen Elkarteak kaleratu dituen datuen arabera. Kontutan hartzeko datua da, horregatik, ostegunean, joko eta jostailuen kontsumo arduratsuz arituko da Helena San Pedro psikologoak. “Gure gaztetxoenen opariak hautatzean kontuan hartzeko giltzarriak” eskainiko ditu.

Rodrigo Fernández Miranda, Ekologistak Martxan elkarteko kidea gonbidatu dute. Rodrigok Eguberrietako egunetan ere ingurumena kontutan hartu eta zaindu behar dugula gogoraraziko digu. Gabonak modu jasangarriago batean ospatzeko alternatibak azalduko ditu.

Jardunaldietan parte hartzen duten guztien artean produktu ekologikoz osatutako otar bat zozketatuko dute. •



Produktu ekologikoez egiteko errezetak

Gaztaina eta Intxaur Strudela (Estefani Seidenberger)

Osagaiak: 3 edalontzi gari-irina erdi integrala, edalontzi bat ur, edalontzi laurden bat ekilore-olio eta gatza pixka bat. Dena eskuekin oratu masa trinko eta malgu bat lortu arte. Orea gainazal lau batean zabaldu. Nahiko masa fina geratu behar du. **Betegarria:** aran-pasak, intxaurrak, gaztaina erreak eta errege-sagarrak zuritu eta xerra finetan moztu. Dena nahastu eta orearen gainean jarri. **Osaera:** fruitu kapa fin bat ore kaparen gainean jartzen da. Masaren alde bat fruiturik gabe uzten da strudela ixteko eta bi masak errazago itsasteko ur pixka batekin igurtzi behar da. Labeko bandeja bat eta Strudelaren aina olio pixka batez igurtzi. Labean egosi 200º-tara 30 minutuz gutxi gorabehera, Strudelaren lodieraren arabera. Behin hoztuta, moztu eta zerbitzatu. •

Udazkeneko Taloa (Estefani Seidenberger)

Azalorea: azalorea moztu tamaina ertaineko loreetan. Loreak salteatu oliba olio pixka batekin, ondoren, gatz eta ur pixka bat gehitu. Sutan egosten utzi mantso-mantso 15 minutu. **Arbia:** arbiak moztu eta uretan egosi. Masa likido bat egin irina, ura eta gatzarekin eta arbiak horrekin busti eta ogi birrindutik pasa. Azkenik olio ugariarekin frijitu. **Azenarioa eta aza:** azenarioa birrindu, aza fin txikitu. Nahastu eta gatza bota. Beratzen utzi ordubete gutxienez. Olio eta sagar ozpin pixka bat gaineratu. **Tipula eta zerbaren berdea:** zerbaren hostoak hiru minutu egosi eta ondoren moztu. Tipulak oliotan salteatu eta ondoren gatza eta egositako hostoak bota. 20 minutu egosi su txikienean. **Osaera:** barazkiak taloaren gainean jarri, arbia goian egongo delarik. Jarraian zerbitzatu. •

Kalabaza eta Laranja-zoko Zopa (Martín Berasategi)

Osagaiak: 500 g kalabaza; laranja-azal bat, zuria kenduta; 50 g tipula; 500 g hegazti-salda; 100 g gurin; 100 g esne-gain harrotu; 5 g oliba-olio birjina. **Nola egin:** Kalabaza eta tipula puska txikietan zatituko dugu, gero oliba-olio birjinarekin potxatzeko (10 minutuz, su txikian). Hegazti-salda gehituko diogu, eta 20 edo 30 minutuz egosten utziko dugu, baina, egosketaren erdian, laranja-azala gehituko diogu, eta kalabaza egosita dagoen arte edukiko dugu. Termomixean birrinduko dugu, azala kenduta, eta iragazki mehetik igaroaraziko dugu, gero gurinarekin eta esne-gain harrotuarekin erabat harrotzeko. Azkenik, maneatu gatz eta piperbeltzarekin, eta zerbitzatu temperatura epelean edo beroan, bakoitzaren gustuen arabera. •

Txirula eta gitarra soinuak elkarrekin

- Danok Kideren IV. Musika Topaketak ostiraleko emanaldiarekin hasi dira Brigitarren elizan
- Bruno Claveria flauta jolea eta Eduardo Berenzano gitarra jolea bikain aritu ziren kontzertuan

TXINTXARRI

Laugarren urtez Musika Topaketak antolatu ditu Danok Kide elkarteak eta aurtengo ikasturteko egitarauari ostiraluntzeko kontzertuarekin eman zaio hasiera. Brigitarren komentuko eliza bete egin zen Bruno Claverie iparraldeko flauta joleak eta Eduardo Baranzano Uruguain jaiotako gitarra joleak eskaini zuten emanaldia ikusteko. Biak Euskadiko Orkestan ari dira.

Berezia izan zen Danok Kide elkarteak antolatzen dituen Musika Topaketen hasiera. Kontzertu berezia eskaini zute aipatutako bi musikagileek. Arratsaldeko 19:30etatik aurrera sarri elkarrekin jotzen ez diren bi musika tresnaz gozatzeko aukera izan zen. Badira bi tresna hauentzat idatzitako hainbat musika lan eta hauen aukeraketa bat eskaini zuten. Tarteka, Eduardo Baranzano gitarra jolea bakarka ere aritu zen. Gustura utzi zituzten bi musikariek, kontzertua ikustera hurbildu ziren herritarrek.

Bruno Claveriek bere ikasketak Bayonne-Côte Basque-



Bruno Claverie flauta jolea eta Eduardo Baranzano gitarra jolea ostiralean Brigidatoko elizan eman zuten kontzertuan.

eko Kontserbatorioan hasi eta gorengo kalifikazioak eskuratu zituen. 1986an 1go zenbakiarekin sartu zen Pariseko Goi Mailako Musika Kontserbatorioan. 1989tik Euskadiko Orkestra Sinfoniko flauta bakarlaria da eta 2002tik Musikeneko irakaslea.

Eduardo Baranzano Uruguayen jaio zen. Gitarra ikasketak bukatu eta hainbat lehiaketan sariak jaso ditu, besteak beste, Habana, Toronton, Benicassimen, Madrilan, Almuñecarren eta Mallorkako Palman. 1989an Radio Franceko sari nagusia

jaso zuen. Antzinako musika lantzen duten hainbat taldeetan parte hartu du. "AIREAN" Euskal Herriko Gitarra Elkarteko buru da, eta baita Zarauzko Jaialdiko zuzendari artistikoa ere. Donostiako Kontserbatorioko maisua da. Hainbat pieza labur jo zituz-

ten ostiraleko kontzertuan eliza bete zutenen gozamenerako, besteak beste errumaniako dantzak, Kubako Eduardo Martin musikagilearen zenbait lanak (gitarra joleak bakarka), Brasilgo abesti herrikoiak eta tangoaren historia. •

Naizroxaren kontzertu ikaragarria Jalgin

Ikarratik aldegin zuten Jalgitik ostiral gauean bertan zeuden bezeroetako batzuk Naizroxaren kontzertua hasi orduko Pasai Donibaneko talde honen musikaren potentzia entzunda. "iqharaturic" diskoa aurkeztu zuten eta taberna bete zuten musikazaleek ikaragarri gozatu zuten taldearen ikuskizunarekin. Kontzertu beroa, eritimo bizikoa, abiadura handikoa eta dezibelio altukoa eskaini zuten laukoteak.

Azkar jotzen dute NRko kideek, abestiak laburrak dira

eta abeslaria ez da gelditi egingo, orain dantzan, orain kantari eta orain teklak jotzen.

Mikel Laboa ere gonbidatu zuten: bere ahotsa erabili zuten hasteko eta tarteko beste abesti batean. Baina, bestela, Naizroxa taldeak zuzeneko gordina eta indartsua du, eritimo aldaketa handikoa. Dena eman zuten ostiralean, atsedenean ia hartu gabe, ikusleen gozamenerako. Baju jole berria aurkeztu zuten taldeak ostiral gauean Jalgin emandako kontzertuan. •



Naizroxak kontzertu laburra baina bizia eskaini zuten Jalgin ostiralean.

Ez zen Underneed taldearen emanaldirik izan Kultur Etxean

Aurreko ostiralean arratsaldeko 20:00etan Kultur Etxeko kafetegian Underneed taldeak eskaini behar zuten emanaldia azken orduan bertan behera geratu zen, abeslaria gaixotu egin zelako.

Xpression taldeak antolatu zuten hamabost egunero kontzertuak Kultur Etxean Lasarte-Oriako Gazteria sailaren laguntzarekin eta arduradunak adierazi digunez talde honen kontzertua hurrengo asteetan eskainiko da. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkartea. Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketa

PILAR SOBERONEN IKASLEEN MARGOAK ikusgai. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan

Asteazkena, 3

Ipuin-kontalaria

KORUKO ZURUTUZA ipuin-kontalariaren saioa etxeko txikiengatik. Kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etan. EUSKARAZ

Osteguna 4

Zinea

HACIA RUTAS SALVAJES filma ikusgai Okendo Zinema Taldearen eskutik. Kulturetxean 22:00etan. Sarrera, 4 euro. GAZTELANIAZ

Ostirala, 5

Kontzertua

MAKULU KEN taldearen emanaldia Xpression! elkarte eta Lasarte-Oriako udaleko Gazteria Sailak sinatutako hitzarmenaren barruan. Kulturetxeko kafetegian, 20:00etan.



Diaporamen zikloaren azken emanaldia asteazkenean

HIBAI DIEZEK ETA LAGUNEK emango diote amaiera urtero Ttakun Kultur Elkarteak Jalgi kafe-antzokian antolatzen duen *Irudiekin munduan barrena* diaporamen zikloari. Saio hau seigarrena izango da eta talde honek Txina, Tibet, Kyrgyztan eta Uzbekistanera eginiko bidaian bizitakoa kontatuko dute.

ASTEAZKENEAN, HILAREN 3AN
JALGI KAFE-ANTZOKIAN
21:00ETAN, EUSKARAZ

Antzerkia

NIK EGIN BEHARKO antzezlanaren Zirika Zirkus taldearen eskutik. Ekitaldi hau Kultur Errota egitasmoaren barne dago (Topagunea). Jalgi kafe-antzokian, 22:30ean, EUSKARAZ.



Larunbata, 6

Kontzertua

ARITZ SOUND SYSTEM DJaren emanaldia izango da hileroko Ttakuntronik zirkuituaren barruan. Jalgi kafe-antzokian, 23:00etan.



Asteazkena, 10

Ipuin-kontalaria

BEATRIZ EGIZABALEK 6 eta 8 urte bitarteko haurrei ipuin zoragarriak kontatuko dizkie. Manuel Lekuona kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etan. EUSKARAZ



Ostirala, 12

Jam sesioa

E-MONKION talde gonbidatuak emango dio hileroko jam sesioari hasiera. Jalgi kafe-antzokian, 22:30ean.

Asteazkena, 17

Ipuin-kontalaria

KORUKO ZURUTUZA ipuin-kontalariak saio polita eskainiko die etxeko txikiengatik. Manuel Lekuona kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etan. EUSKARAZ

Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara
Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

Oharrak

Katxalin Elkarteak loteria

Bularreko eta Ginekologiako Minbiziagatik Eragindako Gipuzkoako Emakumeen Elkarteak, Katxalinek, gabonetako loteria bidali du Lasarte-Oriako Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegora. Zenbakia 07.731 da eta txartel bakoitzaren prezioa 3 eurotako da, 0,50 zentimoko dohainak Katxalin elkartarako izango da. Loteria hau erosteko interesa dutenek KIUBn egin dezakete, Ganbo kalean.

Eguberrietako loteria

Lasartearra elkarteak, bazkide eta lagunei jakinarazi nahi die, gabonetako loteria dagoeneko salgai dagoela. Erosteneko asmoa duenak elkartearen egin dezake astelehenetik ostira-

lera 18:00aurerra abenduaren 7a arte, hau barne.

Bideo kamara bat galdu da

Pasa den larunbatean, Jaizkibel plazan bideo kamara bat galdu zen, Burgi tabernaren aurrean. Aurkitu duenak mesedez, telefono honetara deitu dezala: 943 36 24 10.

Larrialdia Beninen

Beninera bidaltzeko janari biletak egingo da. Bilduko den janari mota honetakoa da: arroz, lekariak, pasta. Janaria bidaltzeko interesa eta asmoa duenak honako lekuetara jo behar du eta bertan utzi dezake: Jubilatuen egoitzan, DIA dendera, supermarketua (Sasoetan), Eroski centeren, Arsuagan (Oztaran), Dendaberrin (Zirkuitu ibil-

bidea). M^a Auxiliadoraren izenean mila esker.

Esulanen ikastaroa

Ttakunek lepokoak, brotxeak eta belarritakoak egiteko ikastaroa antolatu du. Bertan izena emateko azken eguna abenduaren 5a da. Izena emateko edo informazio gehiago behar izanez gero, jo Ttakunera (Geltoki kalea 4) edo deitu telefono honetara: 943 371448. Ikastaroa arratsaldez izango da, astearte eta larunbatetan edo ostiral eta larunbatetan.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info
txintxarri@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behe



BEC-erako autobusa

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluaren 10. urteurrena dela eta, Barakaldoko BECen *Pauso bat harago* ekitaldia antolatu dute arratsaldeko 18:00etan. Bertara joateko Ttakun Kultur Elkarteak autobusa antolatu du. Txartelak 14 euroko prezioa du eta Ttakunen bertan eskuratu daiteke abenduaren 9a baino lehen.

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkariari. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

‘Emakumearen aurkako indarkeria gizartearen arazoa dela jakinarazi behar da’

TXINTXARRI

“Emakumeek haienganako indarkeriaren aurkako duten konpromezua handia da eta nik nire lanean eta hitzaldietan hori erakusten saiatzen naiz,” honela hasi zuen Teresa Mollák Emakumearenganako indarkeriaren kontrako egunean Zentro Zibikoan eskaini zuen hitzaldia.

“Lehentasan handiko arazoa da, urtero bizia galtzen duten pertsona kopuruagatik,” gogoratu zuen Mollák andereak eta jarraian, “bizitzaren galaraz hitz egiten dugunean, minari buruz hitz egiten dugu, baita sufrimenduari buruz ere. Estatu espainiarrean, emakume batek bataz besteko 8 urte itxaroten ditu tratu txarren salaketa jartzeko, 8 urte hauek ez dira arrosa kolorekoak, sufrimendu urteak dira.”

Jarraian, indarkeriaren eskalera azaldu zuen “lehenengo mailan indarkeria psikologikoa dator, ostean hitzen indarkeria, hirugarren mailan indarkeria sexuala eta indarkeria fisikoa dago laugarrenean. Lehenengo mailan ezetz esaten ikasi behar da, ez da amodioa beste zerbaitekin nahastu behar. Azken maila heriotza da.”

“Azken finean, emakume orok sufritu dezake indarkeria,” gogoratu zuen Mollák andereak, “gainera, emakumeak bizitzan zehar indarkeria mota desberdinak jasan ditzake.”

Historikoki gaia kokatu

“Emakumearenganako indarkeriari buruz ez da 70. hamarkada bukaera 80. hamarkada hasiera arte hitz egiten, zeren eta ez zuten arazotzat hartzen”, azaldu zuen Mollák andereak. Kontzeptualizazioa ez zen 93ra arte egin, Nazio Batuek Vienan egin zen Giza eskubideen biltzarrean. Ostean, 95eko Emakumeari buruzko IV. Biltzarrean Beijingen, definizioa zabalzten da

“Lege integralean 2004ean definizio ona, nahiz eta legeak bere hutsuneak izan, pausu handia dago berdintasunaren alde eta indarkeriaren aurka. Definizioak zera dio ez da eremu pribatuko arazoa, gure gizartearen dagoen desberdintasunaren erakusle bortitzena da, emakumeen aurkako indarkeria emakumea izateagatik da. Egoera politika arazoa bihurtzen da, gizartearen arazoa. Baina baliabide gehiago behar dira legeak dioenak aurrera eramateko,” azaldu zuen Teresak.

Hezkuntzaren garrantziari buruz ere hitz egin zuen, instituzioen esku hartzeaz eta prebentzioa eta indarkeria jasan duten emakumeen segurtasunaz.

Indarkeria erak

Ostean, Europako kontseiluaren arabera dauden indarkeria mota desberdinak aipatu zituen.

Lehena guztiok ezagutzen dugun, indarkeria fisikoa; bigarrena sexuala, hau da, emakumeak egin nahi ez eta helburu sexuala duten ekintzak; indarkeria psikologikoa da hurrengoak, txisteak, esamesak, irainak, etab.; laugarrena ekonomikoa da, hau da, dirua kontrolatzea, lan postua bilatzea ez uztea, ideei honekin lotuta emakume eta gizonen arteko soldaten desberdintasunari buruz jardun zen eta emakumeen lanpostu ezegonkorrei buruz; bosgarrena espirituala da, hau da, nahi digun sineskera izan eta nahi ditugun errietoak egitea ez uztea eta azkenik, estrukturala dago.

Azken hau, ulertzen zailena dela azaldu zuen hizlariak, “indar-

keri ekonomikoarekin lotura du, baina emakumeak bere eskubide basikoak aurrera emateko ikusezinak diren oztopoak ditu eta desberdintasunak sortzen. Adibide gida, irrati saio eta telebistetako mahai inguruetan gonbidatuak gehienak gizonak izatea ez da arraro egiten, edo ekonomia munduan ere komunikabideetan ikus eta irakurri dezakegun bezala boterea gizonek dute. Horrek emakumeak gutxiago dakigula esan nahi du? Ez, hau mendeetako egoeraren ondorio da, haiek izan dute boterea eta estrukturaliki horrela izan da beti, haiek errazago iritsi dira botere postuetara, gu bidean geratu gara.”

Ostean bikote harremanen gaia jorratu zuen, “kulturaliki eta ohituragatik bikoteetan gizonak izan dute boterea. Amodio platonikoaren ideia dugu, honi esker haiek dira garrantzitsuak eta guk haien esanak eta beharrak ase behar ditugu, honela hierarkia harre-

mana ematen da, haiek dute boterea eta hura pater familia. Entzun al duzue inoiz mater familia esaera? Ez, baina familia monoparentalak daude eta familiaren euskari diren emakumeak gehiago dago.”

Eta honela jarraitu zuen, “ez gara sentimenduetan heziak izan, amodio erromantikoaren ideia sartu digute eta honek gizonaren boterearen jarraipena dakar. Zure bizia alde batera utzi eta ama, emazte izatera bultzatzen zaituzte eta emakume izateaz ahazten zara.”

“Berdintasuna egoteko bikotearen %100a behar da, berdintasuna aldarrikatu behar da, baina bikotea ondoan izanik, berdin bezala onartu behar gaituzte. Hark historikoki dituen pribilegio batzuk alde batera utzi behar ditu berdintasuna lortzeko. Sexuen arteko borroka esamoldea entzun dugu guztiok, nire ustez ez da sexu batek bestearekin lekua kentzea, baizik eta zuk gizona izateagatik betetzen duzun gunehorretan lekutxo bat eginiezadazu, nire eskubideak eskuratu nahi baitituzte,” aipatu zuen.

Egoera

“Ez dira indarkeria motak hauek gertatzen diren egoerekin nahastu behar,” azaldu zuen, baita indarkeria ematen den egoerak ere, “etxeko indarkeria dago, familian gertatzen dena, alabenganakoa edo emaztearenganakoa; gizarte indarkeria, emakume trafikoa edo sexu indarkeria esate baterako; laneko indarkeria; g u d e t a k o i n d a r k e r i a ,

honetan emakumeen gorpuak bataila-eremu bihurtzen dira bortxaketak, hilketak... Egun gertatzen ari da eta iraingarria da; ohituren indarkeria, hala ola, ablazioa edo gurasoek adostutako ezkontza eta komunikabideetan dagoen indarkeria adibidez, Dolce & Gabannaren iragarkia edo albistetan, lehen pasio-hilketa bezala hartzen ziren genero indarkeriaren ondorioz zeuden hilketak eta honela errealitatea ukatzen dute.”

Jarraian zera atxiki zuen, “lege integralak genero indarkeri bezala indarkeria psikologikoa onartzen du, fisikoari gehituta noski, baina indarkeriazko jokabideak ere bertan daude.”

“OMEK, Osasunaren Mundu Erakundeak gizarte guztietan ematen den arazoa dela dio. Hau beti gertatu den gauza da. Baina gaur egun gehiago oharitzen gara, komunikabideetan agertzen baitira hilketak eta hauek zenbatzen baititugu. Gizartearen arazoa dela jakin arazi eta oharitu behar da, kalera atera behar den arazoa da. Normaltasunez hitz egiteko moduko den gaia bihurtzen denean, orduan gizarte arazo izango da, ez etxekoa soilik,” esan zuen Mollák andereak.

Datuak

Azkenik datu interesgarriak eskaini zituen, esate baterako, “3 emakumetik batek abusua sufritu du bere familiaren esku edo ezagun baten esku, familia indarkeria lehenengo heriotza kausa da istripu eta minbizien aurretik edo 70 milioi neska gutxiago dago munduan abortu selektiboengatik.”

“Heriotza izebergaren gailurra, ondorio psikologikoak handiak eta kalkulazezinak dira,” bukatu zuen hitzaldia. Ostean, Zentro Zibikora gerturatu ziren emakumeek, Lourdes Acevedo gizarte zerbitzuetako buruak eta Teresa Mollák gaiari buruzko solasaldia izan zuten. •



GABONETAKO TXOKOAK







Goizeko 9:00-13:30
2000tik 2006ra jaiotakoak

Matrikula: abenduaren 17ra arte

Aurten larunbatetan ere bai!!!

Ttakun K.E. Geltoki kalea 4, 943 37 14 48, Amaraun ludoteka, Ola kalea 1, www.ttakun.com, aisia@ttakun.com